

» DISKOA

Punk-rockaren historia berri datzita



Iker Barandiaran

1980ko hamarkada bukaeran Euskal Herriko punkaren urte distiratsuak apaltzen zihozten, 1977ko Ingalaterrako punketik inportatutako garrantzitasuna ez zen lehengo bera eta mezuak errepikatzen ziren. Halako batean Donostiako auzune batean AEBetako eta Europako bestelako punk-rock talde korronteei arreta jarri zien La Perrera talde amorratua jaio zen: hemen ezagutzen ez genituen erreferenteak (Loveslug, Dictators, Angry Samoans, Dead Boys, MC5...) errebindikatu eta hain politikoak ez ziren hitzak idazten. Bost urte eskaseko ibilbide basatia egin zuten, ezjakintasunaren eta indiferentziaren aurrean bidea zabaltzen, eta justu onespina lortzen hastean, taldea bertan behera utzi zuten.

Urtebetera La Perrera kideetako bik –Arturo eta Gonzalo Ibañezek– Nuevo Catecismo Católico (NCC) sortu zuten; eta beste bik –Xabi Garrek eta Mikel Seranok– Señor No, hain justu Euskal Herriko eta oro har Espainiako Estatuako punk-rockaren oinarri bihurtu diren bi talde handi. Hala, 2017an NCCk 25 urte bete zituen eta bidean inoiz hutsik egin ez duten ehunka eta ehunka kontzertu gogoangarri, zazpi disko luze, single ugari eta kolaborazio

Antología 1992-2017

NUEVO CATECISMO
CATÓLICO

Autoekoizpena, 2017

*Nuevo Catecismo Católico,
Donostiako punk musika taldea.*



dezenete. Hori ospatzeko, honako bilduma interesgarria kaleratu dute CD bikoitzean batuta, ibilbideko atzoko eta gaurko 46 kanta ezagun zein ezezagun; baita Dani Mortajak idatzitako taldeari buruzko 68 orrialdeko liburuxka oso-osu osatu bat ere.

La Perreraen ildoari jarraituta, baina estilo gehiagorekin aberastuta, punk-rockari ñabardura gehiago eskaini dio Nuevo Catecismo Católicok bere ibilbidean, betiere estilo handiko rock amorratuaren koordenadatan, musikaren gaineko ezagutza handia erakutsiz. Lehen CDan maketako eta hastapenetako diskoetako hainbat perla, zuzeneko piezak, Chockablock estudioko zenbait hartze, eta Dead Boys, Wayne Conty, Rose Tatto, The Flammin'

Groovies eta RIPen bertsio inspiratu bana. Bigarren CDan azken lanetako perlak, tartean Chockablock estudioko sesioetakoak, Bonberenea estudiokoak, Tolosan zein Oviedoko Crossroad jaialdian El Vez-ekin batera egindako zuzenekoak, singleetako pieza ezezagunak eta La Banda Trapeza, UK Subs edo Dead Boysen bertsioak aurki ditzakegu. ■